



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

Espediente zk./Nº expediente: 2023ZHIT0004 **Erreg. data/Fecha reg:** 2023/02/06

Erreg. zk. / Nº registro: 002516

Gaia/Asunto: PIARRES LARZABAL ikastetxeko ikasleak Errenteriako Udalera praktikak egitera etortzea - Lorezaintzara-2023

Eskatzailea/Solicitante: PIARRES LARZABAL PIARRES LARZABAL IKASTETXEA

NAN(IFK)/DNI(NIF): 00099999H

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

**ERRETERIAKO UDALAREN ETA PIARRES LARZABAL KOLEGIOAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA
IKASLEAK LAN MUNDUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**

Errenterian, sinaduran azaltzen den datan.

ELKARTU DIRA

Itziar Ostolaza Galdos, Errenteriako Udaleko Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria.

Beste aldetik, Iñaki Lekuona, NAN 15.256.455A, Ziburuko Piarres Larzabal Ikastolako zuzendaria eta haren izenean eta ordezkari gisa diharduena. Ikastetxearen helbidea da Eugene Corre Etorbidea, 3, 64500, Ziburu, Lapurdi.

Bi aldeek legezko ahalmena onartzen diote elkarri lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko ondorengo aurrekarietan oinarrituta.

AURREKARIAK

Piarres Larzabal Kolegioak (aurrerantzean "Kolegioa") interesa du bertako ikasle diren eta desgaitasun edo zailtasunak dituzten haurrak lan munduarekin harremantzeko. Hau da: ofizio batetako jardueraren parte izatea zer den ezagutu dezaten.

Kolegioaren ustez, lorezaintza da haur horien heziketarako interesgarria izan daitezkeen jardueretako bat.

Kolegioa Errenteriako Udalarekin (aurrerantzean "Udala") kontaktuan jarri da, egitasmoan parte har dezan proposatuz eta Udala bat dator horrekin.

KLAUSULAK

1) Kolegioko 4. mailako (2. DBH) hiru edo lau ikaslek, kolegioak aukeratuko dituenak, ikasle horien heziketa prozesuaren barne, hiru egunetan Udal lorazainekin batera izango dira, lorazainen ohiko egitekoen berri izate aldera eta hauen jardueraren ezagutza bertatik-bertara jasotzeko.



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

2) Goiz horiek maiatzaren 5ean, 12an eta ekainaren 2 eta 9an izango dira. Ordutegia: goizeko 9:15ak eta 12:15ak artean. Bai egunak eta bai orduak aldatu ahalko dira alde bien adostasunez. Udalaren ordezkariak, egunak eta orduak zehazteko, izango dira lorazain arduraduna eta Hiri Mantenimendu azpisaileko burua.

3) Haurrak Kolegioko hezitzaile baten ardurapean egongo dira uneoro. Harek erabakiko du haurrek lorazaintzarekin loturiko jardueraren bati ekingo dioten, bermatuz, lorazain arduradunarekin batera, jarduera hori ez dela arriskutsua izango haientzat.

4) Udal lorazain arduradunaren betebeharra izango da bertaratutako ikasleei lorazainen eginbarrei buruzko azalpenak ematea, behar duten laguntza guztia emanez eta izan ditzaketen galderei erantzunez.

5) Kolegioa arduratuko da gurasoen baimenak lortzeaz eta haurrentzat aseguruak egiteaz, jarduera gauzatzen den bitartean gerta ahalko litzatekeen edozein kalte estaltze aldera, Udalaren arduratik at geldituko litzateke eta. Udalak Kolegioari eskatu ahalko dio aseguru horien kopia bat.

6) Lankidetza hitzarmen honen gauzatzeagatik sinatzaileek ez diote elkarri ezer ordaindu beharko.

7) Lankidetza hitzarmenaren jarraipena errazteko, kide hauek osaturiko batzorde misto bat eratuko da:

- Udaletik: Hezkuntzako Zinegotzi ordezkaria, Hiri Mantenimendu azpisaileko burua eta Lorazain arduraduna.
- Kolegiotik : Iñaki Lekuona, Larraitx Antzizar, Miren Zabala eta Helena Xurio.

Batzorde hau, bere edozein kideren eskaerari erantzunez, ondorengo 7 egunetan bilduko da.

8) Lankidetza hitzarmen honen iraupena izango da egitasmoa gauzatu artekoa. Gehienez, 2023ko ekainaren 30 arte.

Eta adostasuna adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, ale bikoiztuan eta helburu bakar batekin, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

Errenteriako Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria

Piarres Larzabal Kolegioko Zuzendaria

Sntua: Itziar Ostolaza Galdos

Sntua: Iñaki Lekuona



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3f092b09-66f3-449d-9d52-6e46f0dc6df8**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZHIT0004-LANKIDETZA HITZARMENA/CONVENIO DE COLABORACIÓN